

BERGARA

123. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, urriak 22

UDALBATZAK
ZERGA ETA
TASEN
JASOTZEA
ONARTU
DU

FAGOR,
BERGARATIK
ARRASATERA

KIROLAK

AITOR ELKORO
ELGETAR
PELOTARIAREKIN
BERRIKETAN



ESKUEKIN SORTZEN

IBIL ZAITEZ GOI MAILAN

Martxan jarri auto baten benetako balioak.
Martxan jarri ekipamendurik apartena.
Martxan jarri segurtasun neurri erosoak.
Martxan jarri Opel Vectra bat. Martxan.



300.000 Pezeta*
**BITARTEKO
DESKONTUA**

*Stock-ean dauden autoentzako
promozioa hilabete honetan.


OPEL

OPEL AUTO DENDA OFIZIALAK. DENBORAREN PODERIOZ ONENAK.

**TALLERES
OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46
BERGARA (Guipuzkoa)
Erakusketa **ARRASAT**En:
Loramendi, 2. Tfnoak: 79 05 86
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA
ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Kutxa



gipuzkoa
donostia kutxa

**Izaskun OLABARRIA ARANZETArentzat
SEAT ibiza liluragarria!..
102.119 zenbakia.**



Joan zen astean eginiko zozketan Elgetako Kutxako sukurtsalean tokatu zen SEAT Ibiza kotxea. Argazkian, Sabin Urzelai, Elgetako Kutxako sukurtsaleko zuzendaria, Izaskun Olabarriari saria ematen.

**Azaroaren 4ean beste
kotxe bat zozketatuko
dugu Bergaran!!**

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnos. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
eta Mikel Elkorobereibar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Itzi Eranza, Gorka Elorza eta
Alex Labaien.

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
Angel Elkorobereibar, J. M.
Elxpuru, J. Oregi, Marip
Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, M.
Lizarralde, Monika Belastegi,
Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kiñu.

Komikia eta marrazkiak: Josu
Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.


Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esa-
ren eta eritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo sailaren laguntza jaso du

PROTAGONISTAK

"MAKAILAUA"

Joan zen igandean zabaldu zen Bergaran, azken boladan gazteen artean gero eta indar gehiago hartzen ari den "Makailau musika" dantzatzeko lehen diskoteka. Igandean goizeko 6etan ireki zituen ateak dantzatoki berri honen.



Gauzak horrela San Juan auzoko Yola taberna dantzatoki bilakatuko zaigu hemendik aurrera. Hain zuzen ere, zapatuetan goizaldeko 4retan taberna itxi eta bi ordu berandago, berriz ere irekiko ditu ateak, baina diskoteka moduan. Dantzatokia eguerdi partera arte zabalik izango da hemendik aurrea.

Valentzia aldean ospe eta indar handia dituzte era honetako dantzatokiak eta Euskal Herrian ere gero eta gehiago dira. Hiriburuetan ezezik, herrietan ere badira: Arroako Jazberri, Durangoko Canbridje..., eta orain, Bergarako Yola.

Euskadiko "Makailauren bidea" ote?

San Juango Yolán igandero "Makailaua" dantzatzeko aukera

ITURRI ONETIK

Gabonetan argi gutxiago kaleetan

Aurtengo Gabonetan herriko kaleetan argi gutxiago jartzea erabaki du Kultur Talde, Jai eta Gazteria Batzordeak, "dendariek aurreko urteetan emandako erantzun eskasa" dela eta. Iaz adibidez, 6 milioi pta.ko aurrekontuarekin hainbat kale apaindu ziren baina dendarien aldetik jasotako laguntza txikia izan zen Udalaren ustetan. Gauzak horrela, aurten Plazan eta herri sarreretan bakarrik jarriko dira eta aurrekontua milioi bat pezeta ingurukoa izango da.

ESAN DUTE

"Egia da aurten iaz baino sagar gehiago egon daitekeela. Iaz mila tona sagar izan ziren eta aurten baliteke 2 mila tonara iristea. Hala ere, lotsagarria iruditzen zaigu sagardozaileen buruek sagarraren prezioa iaiztik 5 pta.tan jeistea. Ezinezkoa zaigu bizimoduaren egoera kontutan izanda".

VALENTIN GABILONDO
EHNEko presidentea
EUSKADI IRRATIA

"Hasieran jokatzeko moduan nengoela esan zidaten enpresariak, eta gero kanpoan utzi naute. Buruan sartuta nuen jokatzera, eta kolpe handia izan zen. Pilotan jokatzeko erakutsi nahi diet enpresariei ni kanpoan uztean erratu egin zirela, txapelketan tokia banuela".

JOKIN ETXANIZ
Pelotaria
EGUNKARIA

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
Tfnoa: 76 23 48

ITXASMENDI

Taberna

Barrenkale 36
Tfnoa: 76 50 64
BERGARA



EL ABOGADO DEL DIABLO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



EL LIBRO DE LA SELVA

Larunbata: 17.00 eta 19.30.

Igandea: 11.30.



TOYS

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ Jennifer Haines (**Rebecca De Mornay**)

primerako abokatua; Davis Greenbill (**Don Johnson**) defenditza tokatuko zaio eta bion arteko erlazioa sendoagoa den heinean, bere inozentziaz zalantza gehiago izango ditu.

▼▼ Walt Disneyren

klasikoa berriz ere pantailetan.

Rudyard Kipling

idazlearen izen bereko tituluan oinarrituta, animalien artean hazitako *Mowgli* gaztearen gorabeherak kontatzen zaizkigu.

▼▼ Jostailuak dira filme honetako benetako protagonistak. *ZEVO* jostailu etxeak bere zuzendaria galtzen duenean, *Leslie Zevo* (**Robin Williams**) eta bere lagunak jostailu-armen fabrika bihur ez dadin saituko dira.

Deiak

▼ **Gaztetxeak** hainbat ekitaldi antolatu ditu ostiral honetarako, arratsaldeko Setan kalejira eta 11etan rock kontzertua, Etsaiak eta Ume Geiztuak talden eskutik.

▼ **Herri Batasunaren** militante eta jarraitzaileei zuzendutako asanblada zabala ostegunean, hilak 28, 19.00etan Arrano Zaharrean.

▼ **Bergarako eskultoreen** erakusketa Kultur Etxean.

▼ **Senideak** en konzentrazioa asteartean 19.00etan Plazan.

▼ **Deba bailararen alde, autopistaren aurka** plataforma sortzeko bilera Kultur Etxean, hilaren 22an, 19.00etan.

Ogia

▼ **Igandea 24:** Bolintxo.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 23:** Camacho/Irizar.

▼ **Igandea 24:** Camacho/Amezua.

▼ **Astelehena 25:** Puy/Ruiz.

▼ **Asteartea 26:** Guallar/Morales.

▼ **Asteazkena 27:** Estella/

Azkoaga.

▼ **Osteguna 28:** Mozos/Español.

▼ **Ostirala 29:** Camacho/Irizar.

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

Pedro Deuna 8, Tfnoa: 76 27 70 BERGARA

KIROL KARTELDÉGIA

FUTBOLA

BERGARA-REAL UNION
 Preferente maila
 Igandea 16.00. Agorrosin.
BERGARA-EIBAR
 Lehen mailako kadeteak
 Larunbata 11.00. Ipintza.

ESKUBALOIA

BERGARA-ALOÑA MENDI
 Jubenil mutilak
 Larunbata 17.45. Kiroldegia.
BERGARA-LEITZARAN TXIKI
 Kadete neskek
 Larunbata 19.00. Kiroldegia.

PELOTA

BERGARA-ARASATE
 Kadeteak
BERGARA-OSKARBI (Elgeta)
 Jubenilak
BERGARA-ARTXUBIDE (Idiazabal)
 Seniorrak
 Kluben Arteko Pelota Txapelketa.
 Partidu guztiak ostiralean jokatuko
 dira, Bergarako Udal Pelotalekuan
 22.00etatik aurrera.



▼▼ **IV. Fontsi Memoriala** jokatuko da larunbatean Seminarioko patioan. Alfonso Miner "Fontsi" zenaren omenez, kirol proba ezberdinak izango dira goizean-goizetik hasita: 8etan futbito txapelketari emango zaio hasiera, eguerdian salda eta txorizoa banatuko dira, 14.45etan mendi bizikleta trabesia hasiko da, 16.00etan hiruko saskiratzeen txapelketa, 19.00etan futbito txapelketako finala eta, amaitzeko, 20.00etan sari banaketa eta memorialaren amaiera.



Iturkintz Berri

Amillaga 1
 (B pabiloia)
 BERGARA

INSTALAZIOAK:

Iturkintza
Berogintza
Gasa

☎ 76 28 04

A
R
R
A
N
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

J.S.ri erantzuna

Joan zen astean J.S.k izenpetuta astekariari buruzko kritikak jasotzen zituen gutunari erantzunez zera adierazi nahi du BERRIGARAko Erredakzio Bartzordeak:

1. Orain dela hiru aste, 120. alean, irailaren 27rako HBk deitutako greba deialdiak Bergaran izan zuen eragina, eta egun horretako kronika egiten saiatu zen BERRIGARA, horretarako "Asteko berriak" saileko orrialde oso bat eskainiz.

2. Egun horretan HBk deitutako bi manifestazio eta Bergararrak Pakearen Alde kolektiboaren kontzentrazioa izan ziren. Ez bost manifestazio, J.S. kesaten duen bezala.

3. BERRIGARAK ez zuen "biolentziaren faktorea" soilik aitatu eta ez zuen puskatutako telefono kabinaren argazkia bakarrik ipini, eguerdian HBk deitutako manifestazioaren argazki bat ere agertu zen, egunak eman zuenaren ahalik eta informazio zabalena eta objektiboena eman asmoz.

4. BERRIGARAK ez du "botereaz kanpo dabiltzanen aurka" egiten, ez du "errealitatearen aurpegi bat bultzatu eta bestea izkutatzen" eta ez da "Udaletxe eta bertan egin eta desegiten dutenen itzalean bizi". Hori ez da, behintzat, astekariaren nahia eta helburua, eta egin ere ez du egiten BERRIGARAko harpidedun gehienek iritziak. Horren adibidea, iazko Gabonetan BERRIGARAko

400 harpidedun hartuta Nekane Beloki soziologoak egindako azterketaren emaitzak (apirilaren 23an, 104. alean ikus ditzakezue). Azterketa horren arabera, errebista jasotzen dutenen % 94ak, BERRIGARA "astekari irekia dela eta inongo alderdi politikorekin identifikatzen ez dela" dio.

Errebistan herritar guztiek eta iritzi guztiek dute tokia. Asteaz zehar Bergaran gertatu dena kontatzea da helburua.

BERRIGARAK diru publikoa (Udaletik, Diputazioetik eta Eusko Jaurlaritzatik) jasotzen du eta horretarako eskubidea osoa duela uste dugu, baina aldizkariaren diru-iturri nagusia autofinantziaketarena da, errebistan konfidantza osoa jarri duten 100dik gora anuntzianteena.

5. BERRIGARA ez da gezurretan ari. Astekariaren asmoa notiziaren ikuspegi ahalik eta zabalena ematea da, partidismoan erori barik. J.S.k bere ikuspegia eta bere "egia" izango du, ez egia absolutoa.

6. Astekariaren asmoa ez da inoren "gorrotoa piztea". J.S.rengan BERRIGARArenganako gorrotoa piztu badugu sentitzen dugu, baina goiko datuek diotenez, gehiengo handi batengan ez du inondik ere halako sentimendurik sortzen.

BERRIGARAko Erredakzio Bartzordea

Ehiza postuak

Ehundaka ehiza-postu, pertsona axo-lagabe eta zibilizatugabeek betetzen dira

urtero, ehiza izenaz ezagutzen den ganberrokeria eginaz, Euskal Herriko mendietan hilketarik lotsagarriena sortuz. Parapetu hilara bukazezinak ugariegi dira Gipuzkoako gailurretan, gure zerua zeharkatzen saiatzen diren hegazti migratzaileentzat oztopo krudel bilakatzen direlarik. Postu horietako askok, beraien ehize araudietako ziurtasun arauak ere ez dituzte betetzen. Hala eta guztiz, Foru Aldundiko Nekazari sailak legeztatu egiten ditu, ingurugiroaren kontrako interes ekonomikoei joko egingez. Labur esanda, legeztatzen dira baina ez dituzte izadiarekiko errespeto arauak betetzen. Garbi gelditzen da, sarritan ofizialtasuna eta justizia ez direla elkarrekin ibiltzen.

Lerro hauetatik, deialdi bat egin nahi diegu izadia maitatzen duten guztiei, mendizale, ekologista eta gizarte osoari esanaz ez dezatela onartu urte-urte parapetu hauek erabili izaten jarraitzea. Bat egin faunaren arazoarekin. Nahiz eta oso legeztatuak izan ehizarako baimenak, postuak eta horien subasta lotsagarriak; hegazti migrariak hiltzeko eskubiderik ez du inork, gizateriaren ondare izaten jarraitzen dutelako.

Deba Garaiko Talde Ekologistak (Eguzki, Eki, Mendia Bizirik, Amilotx)

Tiira ba!



Josu Okina

Isileko protestaldia Frontoian

Bergararrak Pakearen Alde Kolektiboak isileko konzentrazioa egin zuen asteazken arratsaldean frontoian, bezperan Madrilen izandako atentuen kontra protesta egiteko. Hildakoren bat gertatzen den ondorengo egunean izaten ohi dira kolektibo honen konzentrazioak.

1929an jaiotako ena

Igandean, urriak 31, 1929an jaiotakoek beren anaiarteko ena ospatuko dute. 12 t'erdietan hildakoen omenezko meza izango da San Pedroko parrokian eta ondoren Lasa jatetxean egingo dute bazkaria. Interesatuak 761922 telefono zenbakira jo dezakete lehen bait lehen izena emateko.

Udal zergak eta tasak jasotzea erabaki zuen Udalbatzak

Asteleheneko Plenoan ordenantza fiskalean aldaketa onartu zuen Udalbatzak. Aldaketa hauen arabera, ur-tasa % 33,6 eta zaborrena % 13,8an jasoko dira. Botazioan EAJ eta PSE-EE igoeraren alde azaldu ziren eta HB eta EAK kontrako botoa azaldu zuten. Juan Mari Garitanoren (EA) ustez, "igoeragebiegizkoa da. Urteroko IPCa 5 puntutan gehitzea eskatzen dugu. Herritar guztiei ez zaie ura berdin heltzen eta bonbak Udalaren konturara joatea eskatzen dugu".

Victoriano Gallastegi alkateak prezioa finkatzeko beharrezko azterketak egin zirela eta bonben gaia 1994rako azertuko zela adierazi zion. Daniel Kortabariak (HB) Bergarako urak ez zirela behar beste aprobetxatzen salatu zuen, ur guztia tratatu beharrik ez zegoela proposatu. Alkateak Diputazioarekin sinatutako konbenioaren arabera Urkulutik minimoena (20 l./seg.) jasotzen zela adierazi zion.

Urarekin bezala, zabor



Zabor-tasak % 13,8ko igoera izango du 1994etik aurrera.

tasaren igoera justifikatzeko alkateak zerbitzuen autofinantzaketa beharra aipatu zuen. Igoera hauen arabera ura, zaborra eta estolderiaren faktura (minimoa kontsumituz gero) 3.664 pta.tik 4.442 pta. izatera pasako litzateke, batz besteko igoera % 21,23koa izango delarik.


Beste ordenantzetako igoerari dagokienez, EAJ, PSE-EE eta EAK aldeko botoak eman zituzten eta HBk ezezkoa. % 5eko igoera izango dute Ondasun Higiezinaren Gaineko Zer-

ga (lehenko kontribuzioak), Dokumentuak, Kanposantua, Azoka (merkatu berriko araudia egin arte), Obra eta Irekitze baimenak, Taxien Tasa, Ibilgailuen Gaineko Zerga, Ibilgailuak erretiratzea, Zoru Publikoaren okupazioa edota Zerbitzuei (sauna eta masaje zerbitzuak ezik) dagozkienak. Iharduera Ekonomikoen Gaineko Zerga, Hiri-lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zerga (plusbalioak), Eraikuntza eta Kontribuzio Bereziak berdin jarraituko dute.

Organu emateko kanpaina

"Utzi argiari zeure bizitzan sartzen" lemapean aste honetan zehar organu emate kanpaina egiten ari dira Gipuzkoa osoan zehar. Bergarako ekitaldia larunbatean, hilak 23, izango da, transplanteren bat jaso dutenen eta odol emaileen partaidetzarekin. Kaleetan mahai informatiboak jarriko dira, foiletoak eta organuak emateko boletinak banatuko direlarik.

Gaur egunean Bergarako 7 lagunek jaso dute organuren bat eta beste bat dialisis tratamendua jasotzen ari da. ALCER giltzurrun gaixoen elkarteak herritar guztien kolaborazioa eskatu du larunbaterako. Edozein kontsultatarako 761262 telefono zenbakira jo dezakete interesatuak.



Zerbitzu Ordezkorra Gurutze Gorrian

Deba Garaiko Gurutze Gorriak jakin arazi duenez, 1976/77 urteetan jaio eta 1995an Borondatezko Zerbitzu Ordezkorra egin nahi duten gazteek 765576 telefono zenbakian eman dezakete beren berri. Izena emateko epea abenduaren 31ra arte egongo da zabalik.

Pake epailea Elgetan

Lau urteko agindua bete ondoren, hurrengo lau urtetarako pake epailea eta ordezkorearen hautaketa egingo da Elgetan. Izena emateko epea azaroaren 2ra arte egongo da zabalik Udaletxeko bulegoetan. Baldintza legalak betetzen dituzten aurkeztutako en artean, Udal Plenoak bi pertsona aukeratuko ditu eta bizanleen artean ez bada aurkezten.

Diru-bilketa

Igandean San Martzial ermitako teilatua konpontzeko egindako diru-bilketan 305.587 pta. batu ziren: 8.739 pta. San Lorentzon, 35.765 Sierbetan eta 260.983 pta. Santa Marinan. Santa Marinako parokiak eskerrak eman eta diru-laguntza emateko interesa dutenak Banco Guipuzcoano, Euskadiko Kutxa edota Gipuzkoa-Donostia Kutxara jo dezaketela gogoratu du.



Aurreko edizioan Tapiola abesbatzak eskeini zuen emanaldiko irudi bat.

Udazken Kulturala prest

Azaroaren leian hasiko da Exaudi kubarrekin

Kultur taldeak, Jaiak eta Gazteria Batzordeak zehaztu du dagoneko aurtengo Udazken Kulturalaren programa. Azaroaren leian ekingo zaio aurtengo edizioari *Exaudi* La Habanako abesbatzak emango duen kontzertuarekin, azaroaren 14an *Goaz* antzerki taldearen *"Pernando, bizirik bago oraindion"* emankizuna izango da, azaroaren 21ean Udal Musika Bandak Santa Zeziliako kontzertua eskeinituko du, 27an *"Negros espirituales"* gospel emanaldia, abenduaren 4ean rock jaialdia Ipintzan, abenduaren 10ean Musika Eskolako taldeen kontzertua, Gabonetako kontzertua 18an eta 28an *"Boleros o algo así"* izeneko emanaldia.

Rufina Olasagasti Kultur Gestorearen esanetan, *"ekitaldi selektoak ekarri nahi izan ditugu. Horrez gain, gazteek beren gustoko eki-*

taldia izan dezaten ikas bidaien aldeko rock jaialdia egongo da. Hala ere, entitateko beste ekitaldi kultural batzuk ere ekarri nahi izan ditugu, hala nola antzerkia edota Kultur Etxean egongo diren erakusketak". Horrela, urriaren 29tik azaroaren 7ra Jose Antonio Laskurain eta Daniel Laskurain pintura erakusketa egongo da ikusgai, 12tik 21era Ricardo Azkargorta, Bingen De Pedro, Pello Alberdi eta Yoshiyasu Zenitaniren txanda izango da, 22tik 28ra beira apainduak, abenduaren 1etik 12ra filatelia eta numismatika erakusketa, 13tik 21era kirol argazki lehiaketako lanak eta, azkenik, Bergarako margolarien erakusketa antolatuko da abenduaren 22tik urtarrilaren 2ra bitartean. Aurtengo Udazken Kulturalak milioi terdi pta. inguruko aurrekontua izango du.

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.

Tfnoa: 76 43 07

MINER
ardak

Biltegi telefonoa: 76 41 41

Ardo
onak,
jakina



Lekualdaketa 1994 urtean zehar burutuko da.

FAGOREko planta tokiz aldatu

FAGOREk San Juanen duen planta Garagartzara pasako da

Bergarako FAGOREko planta Garagartzara pasako da 1994 urtean zehar. San Juango plantan momentuan 150 langile dabilta eta bertan lababajillak, aire akondizionatuko aparailuak eta akumuladoreak egiten dira. FAGOREko zuzendaritzak "estrategia eta errentabilitate" arrazoiak aipatu ditu trasladua justifikatzerakoan.

Roman Mujika Bergarako FAGOREko plantilaren arduradunaren hitzetan, "trasladua bi fasetan burutuko da, muntaiarena lehenbizi eta elaboraziokoa (txapakin lan egiten dutenena) ondoren".

Urtean zehar 80.000 lababajilla egiten dira San Juanen eta akondizionadoreak eta akumuladoreak urte sasoi konkretutan egiten dira soilik: urtariletik ekainera bitartean 10.000 akondizionadore lantzen dira eta irailetik abendura bitartean

beste horrenbeste akumuladore (gaueko elektrizitate tarifa aprobetxatuz beroa mantendu eta egunean zehar aprobetxatzeko aukera ematen duten aparailuak).

FAGOREk sukalde zaharrak egiteari utzi egingo dio Garagartzan. Horren ondorioz eta Corbero etxearekin sinatutako akordioaren arabera, Corberok FAGOREn sukaldeak egingo ditu eta FAGOREk, berriz, kalentadoreak egingo dizkio Corberori.

San Juango planta 1975 urte aldera eraikitzen hasi zen eta 1981ean jarri zen martxan, orduan 100 bat langilerekin. Roman Mujikak adierazi digunez ez da plantila murrizketarik izango Garagartzara joategatik eta trasladu guztia 1994 urte amaierarako egina izango dela espero du FAGOREko zuzendaritzak.

Enkuadernazio ikastaroa

Kultur Ekintzak antolatuta, datorren azaroaren 3tik aurrera enkuadernazio ikastaroa emango du Xabier De Zeriok. Interesatuak Kultur Etxean Kultur Ekintzak duen bulegora jo edota 761036 telefono zenbakira deitu dezakete.

Eskaparatismo ikastaroak

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Sailak eskualdeko merkataritza arloari dohaineko zerbitzua ematen jarraitu nahi du Merkataritzaren Laguntza Teknikorako kabinetaren bitartez, astearte eta ostegunetan, goizez, Arrasateko Arrasate kaleko 5. zka.n. Bertako Ibai-Arte Merkatarien elkarteak eskaparatismoari buruzko bi ikastaro antolatu ditu: urriaren 25etik azaroaren 5era lehena (gaueko 9etatik 11etara) eta azaroaren 22tik abenduaren 3ra bitartean bigarrena (14.30etatik 16.30etara). Interesatuak 793399 telefonora dei dezakete.

Torturaren aurkako manifestaldia

Larunbatean, hilak 23, torturaren aurkako manifestaldia burutuko da Bilbon. Bergaratik arratsaldeko 4retan autobusa irtengo da Frontoitik.

Amets

- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.
- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50
AMETS TAILERRAK
 Berezano auzoa OÑATI



IGARZA

MERZERIA
LENZERIA

D. IRALA 5
Tlfnoa: 76 24 88 BERGARA

Astialdirako ZUZENDARI eta BEGIRALE ikastaroa

ZUZENDARI IKASTAROA

ORDUTEGIA:

LARUNBATETAN

10:00-13:30 / 15:30- 20:30

IGANDETAN

09:30-13:30 / 14:30-17:30

PREZIOA:

- Matrikula: 30.000 pzta.
- Pentsioa: 15.000 pzta.

BEGIRALE IKASTAROA

ORDUTEGIA:

LARUNBATETAN

10:00-13:30 / 15:30- 20:30

IGANDETAN

09:30-13:30 / 14:30-17:30

PREZIOA:

- Matrikula: 25.000 pzta.
- Pentsioa: 27.000 pzta.

MATRIKULA eta INFORMAZIO GEHIAGO:

☎ 28 74 88 / 76 08 19 (JARDUN). EPEA: Urriak 30.

Antolatzailea:



Euskal Begirale Eskola

Laguntzailea:



Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BERRIGARA Gida

BERRIGARA GIDA 94, Bergara eta Antzuolako denda, taberna, edota profesional ezberdinen telefonoak jasoko dituen telefono listinaren antzerakoan, zure telefonoa jarri, edota iazko telefonoa, helbidea edo beste edozer gauza aldatu nahi baduzu, eskertuko genizuke gurekin harremanetan lehenbailehen jarriko bazina.

HARREMANETARAKO:

- ☎ 76 08 19. Astelehenetik ostiralera, 18:00-20:00.
- JARDUN Elkarte (Masterreka 13). Ordu-tegi bera.

BEHOBIA-DONOSTIAra AUTOBUSA



Azaroaren 14an, igandea, BEHOBIA-DONOSTIA lasterketan parte hartu edota proba ikustera... antxintxikalariak animatzera... joan nahi duten guztientzat autobusa antolatu nahi du JARDUNek.

Interesa duenak, dei beza JARDUN Elkartera ☎ 76 08 19

Xabier de Zerio San Martin eskolan arte irakaslea da eta hasera batean, fotografia, pintura eta diseinu mundua landu bazituen, duela 6-7 urtetik hona eskulturaren murgildu da. Eskulturak egitekotan hasi zenean egurra aukeratu zuen, bere ustez material hori baita lanterako errezena eta goxoa. Ondoren burdina landu zuen eta orain harria, marmola eta, Nafarroan egin duen azken erakusketan, brontzea erabili ditu.

Artean, bizitzako beste hainbat arlotan gertatzen den moduan, joera ezberdinak daude eta De Zerio ere badu bere bidea *"niri beti gustatu izan zait betiko arte euskalduna, Oteiza eta Chillidaren artea, baina alde batera utzi gabe Mendiburu eta beste jende hori; betiere espazioak eta butsunak Euskal artean oinarrituta"*.

De Zerio erakusketa ugari egin ditu orain arte, baina ez da eskulturatik bizi: *"nabiko ondo saltzen dut, baina lortzen dudak dirua material berriak erosteko erabiltzen dut, honek ez baitu bizitzeko lain ematen"*.

Jende askok erosi ditu bere eskulturak, horien artean Bergarako Udala: *"Duela bi urte Udalak, 500 mila pztako estela bat erosi zidan, baina Udaletxeko obrak hasi zirenean estela zaborretara bota zuten"* adierazi digu De Zerio.

Jubilazioa disfrutatzen

Joseba Azkaratek laister beteko ditu 60 urte eta duela lau urte jubilatu be-

Bergarako pintoreek izan zuten denon arteko erakusketa bat eta orain, lehen aldiz, herriko bederatzi eskultorek dituzte euren lanak erakusgai kultur etxean. Hurrengo orrietan beren lanaren berri duzue.



Zutik: Santi Arrieta, Jon Balentziaga, Maria Jesus Manzisidor, German Amurrio. Makurtuta: Joxan Iza, J.J. Garmendia eta Xabier de Zerio. Joseba Azkarate eta Mari Asun Akizu falta dira.

Eskuekin artea egiten

harra izan zuen. Aitzaki horrekin mutikotatik izan duen afizio bati heldu dio *"nik beti izan ditut 7 edo 8 kutxilo eta tabla zahar bat hartu eta kutxiloekin pistolak, sableak ea... egiten nituen, beti gustatu izan zait egurraren izaitea, testuria, usaina..."* esan digu Azkaratek.

Bere etxeko ganbaran egiten du lan eta etxea eskulturaz gainezka dauka. Azkaratek autodidaktatzat du bere burua: *"Azpeitin eta Eibarren badi-tut lagunak tailista onak direnak, baina bara ez joatearren edo... eta nire helburua eskulturatik bizitzera ez denez, ba nire*

kontura aritzen naiz".

Hori ziurtatuaz Azkaratek argi utzi zigun berak ez duela bere lana saltzen, etxean gorde edo lagunen bati oparitzen dizkio, *"erakusketan aurkeztu dudak bi eskultoretako bat, dagoeneko erregalatu diot lagun bati"*.

"Zeramika artea da"

M^o Jesus Manzisidor jaiotzaz debarra da eta txikitatik zeramika munduan aritu izan da. *"Beti nere kontura ikasi izan dut zeramika eta nire lana sortzeko buruan ditudan ideiez baliatzen naiz. Gero eskulturei izena jartzerako orduan arazoak izaten ditut, nik badakit zeresan nahi duten baina ezin izaten diet izenik jarri"* adierazi digu Manzisidorrek.

Artea eta zeramikaren mundua, kanpotik begiraturaz, badirudi mundu itxia dela: *"edozeinek egin dezake, baina gero bakoitzak ikusi beharko du bere bilakaera. Bizitzako beste esparru batzuen antzera aurrera zoaz edo geldirik geratzen zara"* esan digu Manzisidorrek.

Emakume hau Simon Arrieta zeramika taldeko presidentea da eta talde horretan biltzen direnek zeramikaren barruan dau den arlo ezberdinak lantzen dituzte. Manzisidorrekin artisautza eta artearen arteko eztabaidatxo bat izan genuen. Berarentzat, *"zeramika ez da artisautza, zeren artisautza erabiltzeko gauzak egiten baitira, ez da gauza bera jateko erabiliko diren platerak egitea edo eskultura bat egitea. Beraz, niretzat zeramika artea da"*.

Paristik natorren artista bat naiz ni...

Joxean Iza ikasle txarra izan da eta 18 urte zituenean ikasketak utzi eta bi aldiz pentsatu gabe bere lehengusuarengana

Parisera, alde egin zuen. *"Han Arte Ederretako eskolan ibili nintzen eta mota eta leku askotako jendea aurkitu nuen; esperientzia aberasgarria izan zen"* dio Izak.

Eskultore honi zaletasuna barru barrutik irte ten zaio, berak dioen moduan "tripetatik". *"Neretako eskultura egitea norbera ezagutzeko derrigorrezkoa da eta azken finean ispilu bat da. Handik urte batzutara beste modu batera ikusten dira gauzak eta eskulturak erakutsi egiten dizu"* diosku Izak.

9 urterekin ekin zion pintatzeari, eta erakusketan ikus daitezkeen pappin mekanikoak 1985etik aurrera egin ditu. Bere ustez, *"horiek neraman bizimodu latzaren ispilu dira, Parisen gauza gogorak pasa nituen (azokan fruta lapurtu, rastroan liburuak saldu, ea...) eta eskultura nire*

egoeraren ispilua da". Are gehiago berak dioenez: *"martziano bat sentitzen naiz Parisen hemen baino hobeto mugitzen naiz eta"*.

"Eskuak materialera joaten zitzaizkidan"

Santi Arrieta, mutikotatik pintura munduan murgildu zen, merkatu zaharreko ganbarako estudioan. Pintura munduan hasi bazen ere, berehala igarri zuen eskuak materiala lantzerako joaten zitzaizkiola: *"hortik aurrera eskultura munduan murgilduz joan nintzen, batez ere zeramika lantzen, nabiz eta pintura oso osorik utzi ez dudana"* adierazi du Arrietak.


Bere teknika hobetzeko asmoz estatuan zehar eratu diren hainbat tailerretan parte hartu du. *"Tailerretara nire lana*

garatzeko teknikaren bila joan naiz, ez espresibitatea edo artea ikasteara. Zeramikan buztina lantzeaz aparte labearabiltzen dugu eta hori ondo menperatzea beharrezkoa da" dio Arrietak.

Santik emakume baten bularra eta estela bat aurkeztu ditu erakusketara, eta buztinak lantzeko dituen zailtasunak adierazi dizkigu *"buztina ondo ezagutu behar da, barria edo zura lantzeko orduan hasierako materialekin jokatzeko duzu obra bukatu arte. Buztinarekin, berriz, freskoan hasten zara, baina gero hori lehortuz doa eta horrek arazoak sortzen ditu. Prozesu osoa da eta ordu askoko lana eskatzen du"*.

Eskultura kalean

J.J. Ugaldek eskulturaz aparte diseinua, logotipoak eta pintura ere



Euren esperientzia elkarren artean komentatzeko aukera izan zuten inaugurazio egunean. Argazkian, Manzisidor eta Amurrio.



Aldameneko argazkian, Joxan Iza, Santi Arrieta eta Jon Balentziaga. Behekoan, berriz, J.J. Ugalde eta Xabier de Zerio. Honako hau, herriko eskultoreek batera egiten duten lehenengo erakusketa dugu.

curriculum osatuena.

Bera arte ederretan lizentziatua da eta pintura eta eskultura munduan ezaguna dugu: *"txikitan, baserrian, nire guraso edo aiton-amonak ota-rrak egiten ikusten nituen eta horrek nire interesa pizten zuen. Pinturari dagokionez paisaiak ere asko interesatzen zitzaizkidan. Hasiera batean eskulturak egiteko zura erabiltzen nuen, baina arte modernoak ikusi ondoren beste material batzuk ere landu ditut".*

Balentziagak marmolez egindako eskultura batzuk Euskalerriko hainbat lekutan daude erakusgai.

Material hori aukeratzeko arrazoia honetan datza: *"marmola lan egiteko orduan dagoen gogorrena da eta esatebaterako, Florentzian dauden figurak egiteko marmola erabili da, Portugalen ere marmola erabiltzen da eta hemen Euskal Herrian ere, Markinan hain zuzen, marmol bikaina dugu eta horregatik erabiltzen dut material hori nire lanak egiteko".*

landu izan ditu eta orain grabatuan hasi nahi du. Artista honek M^o Paz Alustizarekin eman zuten bere lehen pausak, eta ondoren Arantzazun zura lantzen ikasi zuen. Hortik aurrera bere burua eskulturaren munduan ikusten du *"niri hirudimentsioen arloa erakargarriagoa iruditzen zait, pinturan gauzak planoegiak dira eta eskulturaren bolumenak, formak eta batez ere kalean espazioak okupatzea gustatzen zait"*.

Orain arte Ugaldek hormigoia eta harria erabili ditu eta orain tenperatura altuko buztina eta zura ari da lantzen, baina burdina eta beste material batzuk lantzeko gogoia ere badu. *"Ideia bat buruan daukadanean badakit ze materialekin egin behar dudan. Esatebaterako, mugimenduan dagoen gauza arin bat adierazi nahi banu alambre edo txapa erabiliko nuke edo pisua adierazi nahi badut harria"*.

German Amurrio berandu hasi zen zeramika lantzen. Ikasketak bukatu ondoren langabezian zegoela eta hobby moduan Simon Arrieta taldean sartu zen. Bere obrak egiteko iturri askotatik edaten du, *"Batzuetan obra bat egiteko ideiarik ez badut, ikusi edo bururatzen zaidan edozer gauza oinarri hartu eta hortik aurrera eskultura egiten dut. Gerta daiteke baserrian izandako ideia, obra bukatu eta gero, guztiz ezberdina izatea"*.

Amurrio zeramikan hasi zenetik 7 urte pasa dira eta bere lanak bilakaera handia izan du *"hasi nintzenez arte figuratiboa egiten nuen, baina gero pixkanaka gauza errealak eta gauza arraroak nabasten joan naiz"*.

Bilakaeraren zergatiak garbi ditu Amurriok: *"arte figuratiboan aurpegiak kopiatzen nituen eta hor ez dago bakoitzaren ekarpenik, bestean bakoitzaren sormena sartzen*

da eta horrek gebiago betetzen nau".

Bere esperientzia mardula den arren ez du erakusketa askorik antolatu, baina orain arte egin dituen erakusketek, batez ere Arrasate eta Elgoibar-rkoak, nahikoa arrakasta izan dute.

Langile nekaezina

Jon Balentziagak du, eskultore guztien artean,



FS
oto sistema

APPÉNI¹

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

SUBIJAi

Gazteentzako moda

Irizar, 1 ☎ 76 42 41

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

GURIDI Altzariak

**Era guztietako
altzariak**

Artekale 8, Tfnoa: 76 31 02

**TBko zein aurkezle gustatzen
zaizu gehien? Eta gutxien?**



Jesus Martinez
24 urte, ikaslea

Gutxien Nieves Herrero sensazionalista bat delako. Gehien Michael Robinson, entretenigarria da.



David Acosta
14 urte, ikaslea

Neretzat onena Emilio Aragon eta gutxien Karlos Argiñano, azkenean aspertu egiten du eta.




Maria Angeles Gil
45 urte, langilea

Iñaki Gabilondo, Urrusolo eta Hermida asko gustatzen zaizkit. Eta gustatzen ez zaizkidanak ez ditut ikusten.



Kristina Markina
22 urte, ikaslea

Pepe Navarro ez zait batere gustatzen eta Urrosolo baste, polemika sortzen dakielako.




POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51



**Mendiaren
aurpegia eta
gurutzea**

Mendian arrakasta eta porrotaren alde oso txikia da. Hil honen hasieran arabar espediziokideek munduko gailurrik altuena lortu zuten. Urriaren 7a zen. Oiartzabal lehenengo kordadan eta Miranda bigarreanean gailurrerantz abiatu ziren.

Esan beharra dago bi kordaden arteko tartea nabarmena zela. Horrela, bada, Oiartzabal gailurrera heldu zen bitartean, pittin bat beherago, berandu zela eta, bigarren kordadakoei kanpamendurako bidea hartzea erabaki zuten. Jadanik ilunpean, badirudi 8.100 metrotara zeudela, Mirandak estrapozu egin zuen hutsunera jausiz.

Dena den egun hura, Mirandarentzat zein bere adiskideentzat euren egunik zoriontsuenetako bat izan zen, Everesteko gailurra zen, prezio oso altua ordaindu bazuten ere euren helburuak lor zituzaten. Arabar espedizioaren babesleek beo mendizale onenak nahi zituzten. Miranda zuten horietako bat. Espedizio arrunt bat izateaz gain zientifikoa zen, giza gorputzak altueran duen portaera ikasi asmoz. Baina zirtizarta mendian edozein istripuk heriotza dakar. Eta hau mendizaleek ondo dakite. Mirandak, berak, noizbait adierazi zuen bazekiela mendian hilko zela, bere bitzta mendia baitzen.

Jakina, bere senideek, andragaiak eta lagunek, zalantzan jarriko dute Mirandak esandakoa; batez ere momentu latz honetan, zorionak eta goian bego esatea oso zaila delako.

Martin De Pedro



**Gure
ondarearen
babesa**


Idazki honekin agurtu nahi dut "Kapirixo" izeneko elkarte berria, duela hilabete pare bat Deba Garaian sortu dena gure inguruan dauden ondareak babestu nahirik.

Batek baino gehiagok pentsa lezake ea non datzan elkarte berri honen beharra, horretarako baitaude erakunde publikoak. Ba hor dago kokxa, ondarea denona da eta lehenik eta behin guk geuk, herritarrok, kosziente izan behar dugu daukagunarekin. Beraz, horretarako ez dago ezer hoberik ezagutzea baino. Itxura denez, "Kapirixo" taldeak bailarako patrimonioa ezagutzea nahi du eta aldi berean, ahalik eta ondoen mantentzen saiatzea. Pena bada ere, dagoeneko, hainbat gauza galdu dugu, batzutan beren balioa ez jakiteagatik, bestetan interes ekonomikoen esklabu iza-teagatik; gure harresiak, errotak edota trikuharriak besteak beste, garai baten lekuko zirenak desagertu egin dira.

Alabaina, orain arte egindakoa alde batera lagata, egin diezaiogun bultzak Kapirixoren inizatibari edo beste nonbaitetik etor litezkeen proposamenei, gure arbasoek ahalegin haundiz utzi digutena atzetik datozen belaunaldiei pasatzeko. Halaber, etxean gordetako aspaldiko erretratuak, aiton-amonen oroigarriak etab. Gure seme-alabek ezagutu dezaten zaintzen ditugun eran, modu berean ezagutu beharko genituzke herriak. Beharrezkoa da egungo gazteei gure iragana ezagutaraztea, azken finean pasatutako garaien aztarnak adierazten baitigute zer garen, eta jakina, herri bat memoriarik gabe eta historiarik gabe ez da ezer. Nekeza izan arren, batu ditzagun ahaleginak eta bai instituzio mailan, bai bakoitzaren ahalmenekin saia gaitezen daukagunari eusten.

Maite Mozos

**Kiroldegiko
Taberna**



Labegaraieta Tfnoa: 76 56 41

**EGUREN
GESTORIA**

Maria Pilar Eguren Diez
Kolegiatutako administrazio gestorea
Simon Arrieta enparantza 3, behea.
☎ 76 21 65 / 76 24 45

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguak
Artekale 6, Tfnoa: 76 13 29

**ileapaindegia
eder gela**

disdira

Masterreka 7 • Tfnoa: 76 00 55

Siaska

**Dena zure
haurrarentzako**

Pedro Deuna 10, Tfnoa: 76 10 39

**JOSE
LUIS
eta
MIKEL**

URTEAGA, 6

- Besaulki eta tresiloen konponketa eta tapizaketa.
- Etxebarruen dekorazioa

☎ 76 07 23 / 76 50 37 / 79 35 17

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

Iletxo Ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

ONENA TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



ARDATZA Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93



□ Azkargotarren bazkaria Osintxun

Larunbatean **Azkargotarren** bazkaria izan zen Osintxuko Txuringo Jatetxean. 50 bat senide izan ziren bertan, Karmen, Irune eta Patxi Azkargorta anai-arrebak eta azken honen Juli Uriarte emaztea tartean. Xabier Azkargorta ere ezin falta. Boliviako selekzioa Estatu Batuetako futbol mundialerako sailkatu ondoren, "Bigotón" (Bolivian deitzen dioten bezala) gure artean da egun batzuk igarotzen, mundiala buru-belarri prestatzen hasi baino lehen. Azkargotarren animoak ez zaizkie faltako boliviarreri...



□ San Migel Iruneraino

Angiozarko jaietan zeruratu zen **San Migel**en irudia Irungo Meaka auzoan dagoen **Amasain** baserrian lurreratu zen, Aiako harkaitzetatik oso hurbil. Aurten ia muga pasatzera ausartu da San Migel. Argazkian **Juan Irigoien**, Amasain baserrikoa, 10.000 pta.ko saria eta Angiozar bisitatzeko gonbidapena (bertako jatetxe batean bi lagunentzako afaria tartean) jasotzen **Jose Angel Mikee** Angiozarko auzo-alkatearen eskutik.

MUGICA

Goxotegia



pastelak,
errellenoak,
tostoiak,
tartak...

Artekale, 3
☎ 76 10 34



□ **Lokatzak denboraldia agurtu**

Lokatza Ziklismo Eskolak denboraldi amaierako afaria egin zuen larunbatean Altzasu Elkartearen. Guztira, 150 bat lagun bildu ziren, txirrindulari, entrenadore, direktibo eta laguntzaileak tartean. Afalostean Jesus Kortabarria "Kaxeta"k denboraldiaren balantzea egin zuen, bazkide kopuruaren gehitzea (70tik 180ra) goraiapatuz. Era berean, mahaiak zerbitzen laguntzarren oparitxo bat eskeini zitzaion Jone Salegiri. Laister hurrengo denboraldiari ekingo diote Lokatzakoek.



□ **Kotxezaleen afaria**

Irailaren 12an Gorlan jokaturako Kotxeen Mendi Igoeran lagundu zuten guztiak ere afaria izan zuten ostiralean Altzasun. 50 lagun inguru bildu ziren eta Bergara Racingen antolaketak kritika onak jaso bazituen ere, ostiraleko afaria ere ez zen atzean geratu. Jakina, motor munduko gaiak eta etorkizunerako asmoak ere eztabaidatu ziren eta auskalo zer prestatuko diguten hurrengorako herriko motorzaleek. Argazkian, ostiralean Altzasun bildutako guztiak.

**Zertan
dibardute
ba?**

ASIS IRIONDO



Gasteizeko Unibertsitatean Euskal Filologian lizentziatutako 26 urteko bergarar honek IKA Ardatza Kultur Elkarteak kaleratutako *Esaera zuhur eta zahar* liburuxkan hartu du parte.


ELISABET ALTUBE



Donostiako Zuzenbide Fakultatean lizentziatua den eta Ana Mozosekin batera abokatu bulegoa duen 35 urteko bergarar hau *Emakundeko Aholkularitza* Juridikoan ari da lanean.

BERGARA BOLTSAK

- ✓ Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab.
- ✓ Denetariko konfekzio industrialak
- ✓ Zuzeneko salmenta publikoa



Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Umore giroan

Sargu-eskalluak jaten

Juan dira sei eibartar Gollibarrera sargu-eskalluekin afarimerixenda eitxera. Ta bai jan be gogoz. Lau kazueta ustu zebezen. Jan, edan, erre, kitarra ta kantuekin giro alaitsu bat sortu zan mai-inguruan. Urrengo juateko gogua be ein jakuen. Batek esatetsa ugezabari:

- Urrengorako be telefonua emon biestak...

- Etxakau geurerik. Baiña zentralera deitxu leikek. Emongo devat numerua. Jarraitxu zebezen umore onian, jan, edan eta kantuan. Ordurako kontua eskatuta zeuken. Ezebezen, baiña, ekartzen ez kontu eta ez numerorik.

Alako baten jua da sukaldera eibartarren kaporal.

- Etxekoandre, baiña, kontua ta numerua biar ditzugu...

- A bai, emen daukat apuntata. Ikusi ta jua da, zuri-zuri, maira gure eibartarra.

- Mutillak! -diño antiojuak: 12.000!
Kittarrak ixildu ziran. Jua ziran pitutara kantua eta umore onak. Baiña, gizon jokatu biar eta zelan edo alan, estu ta larri batu zebezen 12.000 pesetok eta emon detsez etxeandriari. Onek diño:

- Zertan zabizie! Zer da dirutsa au?
- Kontua; 12.000 pza.
- Ez baiña! Ori zentralako numerua zan.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK

Jose Ramon Sasigainek, Pol-Pol Argazki Taldeko kide izateaz gain, elkarte beste sail batzuetan ere parte hartu izan du urte askotan, 70ko hamarkadan batez ere.

Aldamenekoa, Jose Ramonek 1973. urtean Txindokin ateratako argazkia duzue. Pol-Poleko Gazte taldeak egindako irteera baten ateratako argazkia.



JOSE RAMON SASIGAIN EK GIPUZKOAKO ARGAZKILARITZA ELKARTEAREN ZILARREZKO DOMINA JASO DU

Indar haundia hartu du oso denbora gutxian, Pol-Pol Mendizale Taldeko argazkilaritza sailak eta zuzendaritzak egindako lan haundiatik mordoxxa haundia dira -gaztetxoak zein nagusiak- une honetan sail hori osatzen dutenak. Hori dela eta, Pol-Pol Mendizale Taldeko argazkilaritza sailak izen haundia hartu du Gipuzkoa osoan. Eta onarpen horren adierazgarri, horra hor bergar bat hil honen 11n Gipuzkoako

Argazkilaritza Elkartearen lokal berriaren inauguraketa-ekitaldian omendu ziren probintziako argazkizaleen artean.

Bergar hori Jose Ramon Sasigain izan zen eta gaztetxo eta nagusiei argazkilaritza irakasten egindako lana eskertu nahiz zilarrezko domina eskaini zion Gipuzkoako Argazkilaritza Elkarteak.

La Voz. Bikuña. 1973-X-18.

Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak hemerotekatik bildutako notiziak

ELKAR

Arruriaga 1, behea ☎ 76 58 16 BERGARA

• FOTOKOPIAK • ENKUADERNAZIOAK (Termo-enkolatuak, Burdinezko espiralak, Plastikozko espiralak, Faszikuloak) • JENDEARENTZAKO FAXA • PLASTIFIKAZIOA • PLANOEN KOPIAK •




Zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

ARANTZA EGAÑA

Mariaren Sierbak kongregazioko monjak urte mordoxka baten izan dira gure herrian. Jakina da laster Bergaratik joatekoak direla, Oxirondon duten egoitza laga egingo dutela. Baina Oxirondora joan aurretik, 60ko hamarkadara arte, Artekale 22an izan ziren.

ARANTZA EGAÑAk erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, **ZUMELAGA JATETXEA**k emandako saria.


ZORIONAK !!

Besteok segi asmatzen! Animo!!

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53



**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ARANTZA EGAÑAK jaso du aste honetan ZUMELAGA JATETXEAK emandako saria.



Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Bergarak une honetan monumentu ikusgarri asko eduki arren, batez ere eraikuntzei dagokienez, jauregi, eliza, etxe..., bere kaleetan ez du estatua edo horrelakorik eduki frontoi aurreko monolitoa ipini zuten arte. Gerora, gutxi bada ere, zenbait leku dotoretu dira artista desberdinen lanekin edota irudiekin.

Gauza bitxia bada ere, Bergaran dagoen estatua bakarra, elizetakoak eta etxe barrutakoak eta Simon Arrietaren irudia kontutan izan barik, ez dago jardin edo pasealeku baten, estatua hori teiltatuan dago, Juzgadukoan hain zuzen ere.

Zer errepresentatzen du Juzgaduko teiltatuan dagoen irudiak eta zeintzu dira eskuetan dituen bere sinboloak?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Kirol topaketak Oñatin


Deba Garaiko udal kirol zerbitzuek antolatuta, Kirol Politikari buruzko topaketak izango dira azaroaren 19an Oñatiko Santa Ana antzokian. Izen-emateak 6.500 pta. balio du azaroaren 5a baino lehen eginez gero, 8.500 azaroaren 6tik aurrera eta 5.000 pta. SHEEko (IVEF) ikasleentzat. Argibide gehiago 782846 telefonoan.

Igartua 28. Holandan

Iñigo Igartua bergarar txirrindularia, 28. postuan sailkatu zen igandean Eindhovenen (Holandan) jokaturako Munduko Txapelketaren bigarren proban.

AITOR ELKORO: "Gure helburua semifinaletara heltzea da"

Aitor Elkoro 26 urteko elgetar pelotariak eta Salaberriak ezin hobeto ekin zioten eskuz binakako txapelketari, larunbatean Bergaran, Balerdi eta Galarzari 22 eta 12ko emaitzaz nagusituz.



Aitor Elkoro.

- Ustekabeko garai-pena, Aitor?

- Jende askorentzat sorpresa izan da, bai. Nerretako ez. Joku eta konfiantzaz ondo gaude eta irabazteko esperantza genuen materiala ikusi eta gero. Emaizta pixkat eskandalosua bada, are gehiago jendeak *errelle-noko* bikote bezala ikusten gintuenean.

- Galarzari beldurrik ez zeniola esan duzu...

- Guztiei diet errespetoa baina beldurra inori ez. Garaitezina ez dago inor eta indarra kantxan demostratu behar da.

- Eta zein da zure helburua txapelketan?

- Semifinaletan sartzea baina txapelketa luzea da eta nork daki hemendik urtarrilera zer geratuko den. Oraingo forma onari eutsi beharko diogu.

- Pelota profesional-

ki utzita zenuen. Zela bueltatu zinen?

- 87ko ekainean debutatu nuen Bergaran eta irailan soldaduzkara joan behar izan nuen. Ia bi urte eman nituen jokatzeke baina *gusanilloa* piztu zitzaidan eta afizionatuetan 2 urte eman ondoren Asegarcek joan den urteko udan bueltatzeko proposamena egin zidan. Ilusio haundia- rekin nago.

- Eta lanean jarraitzen duzu...

- Asegarcek lana lagatzea planteatu zidan baina gauden egoera honetan ez dut nahi. Lanean erreztasun guztiak eman dizkirate eta jornada erdi egiten dut bakarrik: goizetan lan eta arratsaldean entrenatu. Oraindik asko daukat demostratzeko baina 26 urtekin oraindik badaukat denbora.

Zabaleta irabazle

Aitor Zabaleta bergarar kotxe gidariak igandean Langrean jokaturako Santo Emilianoko igoera irabazi duen Egozkueren aurretik. Deniako proba (azaroak 28) bakarrik falta denean (Palmakoa ziurrenik ez da jokaturako) Zabaleta bigarren da Espainiako txapelketako sailkapenean eta tituloa eskuratzeko azken proba irabazi eta Egozkuek oso karrera txarra burutu beharko luke. Hurrengo denboraldiari begira, itorrek adierazi digunez, "*patrozinadoreekin tratutuanabil eta ahal izanez gero Europako Mendi Txapelketan parte hartzea gustatuko litzaidake*".



KAILASH ZENTRO ESOTERIKOA

Parasikologi Zientzien Instituto Hispano Amerikarrean diplomatutako profesionalak

Tarota • Hipnosia • Erresonantzia
Tfnoa: 76 01 31 (Iris)

IBARGUREN PENTSUAK

Biona pentsuen biltegia. Bioter produktoak eta haziak.

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

Neska kuadrila San Martzialen (1927) eta Distritoko txapelketako sariematea (1948)



Gaurko San Martzialak bakarrik ezagutu dituenak nekez ulertu ere egingo du goiko argazki hori egun horretakoa izan daitekeenik. Bergararentzat egun haundi dena egun haundi zen orduan ere, baina ez dago esan beharrik estiloa asko aldatu dela. Bertan agertzen direnak, honako hauek, ezkerretik eskumara: Eusebi Agirre, Miren Agirreolea, Itziar Mujika, Rosario Uriarte, Juanita Maiztegi eta Arantza Mujika. Atzetxoan, Miren Ugalde eta Anita Azkarate.

Bigarren erretratuak, berriz, Distrito mailako eskuko txapelketako sariematea azaltzen digu. 1948ko otsailaren 8koa da argazkia eta Andoni Ugalde, Esteban Juaristi, Simon Arrieta, Don Jose Lopetegi (?) Federazioko lehendakaria, Rufino Beitia alkatea eta Eustakio Calvo ditugu bertan.

*Esteban Plazaola
Argazkia: Andoni
Ugalde*



LXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA

ederTU

20 urte zure zerbitzura,
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustuan pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatuko nuke. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

DENETARIK

MSX ordenadoreko lau joku salgai. Kartutxoak. ☎ 76 59 47.

Estufa japoniarra salgai. Egoera onean. Oso merke. ☎ 76 31 23.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. la berria. ☎ 77 04 98.

Seat 600 SS-6718 B kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 17 61.

Donostian pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 61 38 (Nerea).

Paseorako Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Ford Fiesta kotxea salgai. SS-K. Ondo zaindua. ☎ 76 58 12.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Renault 18 diesel bat salgai. Familiarra. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Donostiara Ibaetara egunero joan beharra daukat. Kotxea eduki dezaket. ☎ 76 12 81.

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pzta. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

Egunero goizeko 7etan Zumarraga edota Tolosara joateko kotxea behar dut. ☎ 76 48 78.

LANA

Esperientziadun emakume batek gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

Umeak zainduko nituzke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Latin, Euskara eta Frantses klaseak. ☎ 76 02 99.

OHO eta ingeles klaseak emango nituzke ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeak lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Etxeak lanak egin eta umeak zainduko nituzke. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak. ☎ 76 31 36.

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

Ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 46 54.

OHO eta LH (Administratza) klaseak. ☎ 76 50 67.

Hildakoak

Esteban Irizar Oregi urriak 13, 77 urte

Jose Maria Lizarralde Aramendi urriak 15, 81 urte

Juan Maria Akizu Bilbao urri. 15, 44 urte

Carmen Elorza Atxotegi urri. 18, 83 urte

Angela Lete Arriola urri. 20, 65 urte

Jaiotakoak

Eneko Cruz Garcia urriak 10

Saida Rodriguez Bajo urriak 13

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

MAKAILO

Makailau **ETXEA** kazuelak gertatzen ditugu

Ibargarai 15



Sugoi

- ERLOJUAK•
- ARTIKULO ELEKTRONIKOAK•
- KALKULADORAK•
- ZILARRA•
- METALEN BAINU ETA BERRIZTAPENA•

DENDA BERRIA!!

Irizar pasealekua, 2 behea • ☎ 76 59 54 • BERGARA

HALTZARI

FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



FAGOR



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO GARANTIA